

## **BALORE PROPOSAMENAK**

Makina honek **hilerokoa duten pertsonen bizimodua erraztea** du helburu nagusi. Izan ere, **higiene pertsonala** ahalik eta modu **eroso eta seguruenean** egitea sustatu nahi dugu makinaren bitartez.

Garbitasuna ez da norbanakoaren kontua soilik, hortaz, **ingurumena** ere **garbi** mantentzea da makina honekin lortu nahi dugun beste helburu bat. Izan ere, kopak berrerabilgarriak dira eta hilerokoarekin erabiltzen diren gainontzeko baliabideek (konpresak eta tanpoiak) hondakinak sortzen dituzte eta kopak garbituz eta berrerabiliz produktu horien **hondakinak ekidin** daitezke.

Egon badaude kopak esterilizatzeko aparailuak, baina makina hauek etxetik kanpo egonez gero erabiltzeko izango lirateke. Izan ere, tarteka hustu eta ur hotzarekin garbitu behar da. Beraz, baliteke batzuk esterilizatzeko beste bide batzuk baliatzen dituztela **makinaren ordez** eta hauei gure makinak are **berriagoak** irudituko zaizkie. Berria eta berritzailea izatea da gure asmoa.

**Erabiltzaileentzat merkea** izango da makinaren funtzionamendua. Lantzean behin baino ez dute erabiliko eta bakoitzeko kopuru zehatz bat ordaindu beharko dute. Merke izateaz gain, **erabilterraza** ere izango da. Kopa makinan sartu, tapa itxi eta txanpona bota ostean, zain egotea baino ez du egin beharko kopa minutu gutxitan berriz ipintzeko.

Kopak txikiak izanik garbitzeko **makinak** ere **txikiak** izango dira, beraz, komunetan oso espazio txikia beharko dute. Gainera, komuneko iturgintza instalazioak baliatu ahal izango dira funtzionamendurako.

**Diskrezioa edo intimitatea** dira edozeini makina benetan erabiltzeko gogoak piztuko dioten ezaugarriak. Izan ere, eragozpen sozialak ekiditeko modua eskainiko baitu. Hilerokoaren estigmatizazioa nabarmena da, ondorioz, inork ez du nahi komunetan odol arrastoak uzterik. Kopa menstrualak urarekin garbi daitezke komunean baina horretarako ezinbestekoa da konketa edo lababoa barruan duten komunak izatea. Konketa komunetik kanpo dagoenean kopa hustu eta paperarekin zein botilako urarekin garbitu daiteke, baina bigarren hori ere ez da beti eskura izaten. Toallatxoak dira garbiketarako beste bide bat, baina koparekin zaborrik ez sortzea da helburuetako bat eta horrela hondakin gehiago sortuko genituzke. Garbitzeko hainbat modu azaldu arren izatez gehiengo ez da batere intimoa ezta eroso ere. Makina hau komun barruan egonik norbere intimitatean erabiltzeko aukera emango du.